



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1996ko azaroaren 21a

62 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Baloiak Eguneratzeari buruzko Foru Lege proiektua (2. or.).
- Maiatzaren 14ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 6/1992 Foru Legeko hainbat agindu aldatzen dituen Foru Lege proiektua (6. or.).
- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Lege proiektua (11. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Foru Lege proposamena, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzkoa. Emendakinak aurkezteko epea (13. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Ikastetxe itunduetako jarduera osagarriengatik kobratzeari buruzko indarreko legeriari buruzko galdera, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak egin (14. or.).

A Saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Balioak Eguneratzeari buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1996ko azaroaren 11n hartutako Erabakiaren bidez, Balioak Eguneratzeari buruzko Foru Lege proiektua igorri du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 108 eta 125 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Bozera-maleen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Balioak Eguneratzeari buruzko Foru Lege proiektua premiazko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena. Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuak Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **zortzi laneguneko epea irekiko da, 1996ko abenduaren 5eko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126 artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 1996ko azaroaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Balioak Eguneratzeari buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN ADIERAZPENA

Enpresari mozkinaren gaineko zergak ahalegina egin behar du enpresaren benetako mozkinak zergapetzen, inflazioaren distortsioak saihestuz.

Zergen ikuspuntutik, inflazioa zuzentzeko teknika da balantzeen eguneratzea, zergapetu daite-

keen errentatik moneta-depreziazioaren kopurua kentzeko.

Urriaren 26ko 35/1983 Foru Legeak, zerga-neurriari buruzkoak, ezarri zuen azken eguneratze-ikigaro den denbora kontuan izanik, eta baita ere enpresa batzuk ez zirela baimen horretaz baliatu, Foru Lege honek beste eguneratze bat egiteko aukera ematen du, 1983tik hona metatu den inflazioa zuzentzeko tresna gisa.

Zerga-mozkin nominalaren moneta-zuzenketa egiteko bide honek benetako mozkin finkatzeko zehaztasun handiagoa dakar eta enpresen ondare egoera erkatuaren aurkezpen hobea.

Foru Legez onetsitako balio-eguneratzea ezin daiteke berritatzat jo, izan ere, ez du alde handirik aurreko arautegiaren babespean egindako eguneratzeekin; hala ere, berrikuntzak sartu dira eguneratze-teknika egungo zerga-sistemari egokitzeko asmoz.

Lehenengo eta behin, ezarpen eremua zabaldu egin da hurrengoak hartzeko: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasibo izanik enpresari edo lanbide jarduerak burutzen dituzten batzuk.

Bigarrenik, aurreko arautegiak erabili duen eguneratze-bidea ez da irtenbide egokia izan, moneta-zuzenketa ez duelako jarri, funtsean, nor bere baliabideen lormen galtzearen arioren, izan ere, inoren kapitalekin finantzaturiko aktiboetan inflazioak duen eragina mailegu-emaleek jasaten baitute, zorren korritu eta itzulketaren hatsapen nominalistaren ondorioz. Helburu hori lortzeko, Foru Legeak aukera ematen du erregelamendu bidez kontuan hartzeko enpresen finantziario modua, egunera daitezkeen elementuen balio-hazkundearen koefiziente murriztailea ezarri ahal izateko, enpresak dituen baliabide berekien eta inoren finantzaketaren arabera.

Hirugarrenik, birbalorazio kontuaren saldoa dispozizio askeko erreserbetarako gordetzeko aukera ere jarri da, sortu zenetik hamar urteko epea igarotakoan. Erreserbak banatzeak dibiden-

duen ezarpen bikoitzagatiko kenkarirako eskubi-dea sortuko du Sozietateen gaineko Zergan eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, moneta-gainbalioaren kopurua gauzatu izan bada, beti ere.

I. KAPITULUA Ezarpen eremua

1. artikulua. Eremu subjektiboa.

Foru Lege honek arautzen duen balio-eguneratzeari borondatez atxiki ahalko zaizkio:

1. Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboak, baldin eta Hitzarmen Ekonomikoko 16. artikulua xedatuaren arabera, Nafarroako foru arauen menpe badaude, beti ere kontabilitatea Merkataritza Kodeak xedatuarekin edo arau dituzten xedapenekin bat badaramate.

2. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren subjektu pasiboak eta enteak, zerga-helbidea Nafarroan izanik, errenten eratzikipen sistemaren arabera tributatzen dutenak, enpresari edo lanbide jarduerak burutzen dituztenak, beti ere, eta edozein kasutan, errendimendu garbiak zuzeneko zenbatespeneko araubidean zehazten badira eta hurrengo betebeharrak betetzen badituzte:

a) Enpresari jardueretan aritzen badira, Merkataritza Kodeak ezarritakoari jarraituz eraman beharko dute kontabilitatea. Hala ere, burutzen den enpresari jarduerak, aipatu Kodearen arabera, merkataritza izaerarik ez badu, nahikoa izango da ekainaren 30eko 209/1992 Foru Dekretuz onaturiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 64 artikuluko 2. zenbakiak aurreikusitako erregistro-liburu behar bezala diligentziatuak eramatea.

b) Lanbide jarduerak burutzen dituztenean, ekainaren 30eko 209/1992 Foru Dekretuz onaturiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduko 64 artikuluko 3. zenbakiak aurreikusitako erregistro-liburu behar bezala diligentziatuak erabili beharko dituzte.

2. artikulua. Egutera daitezkeen ondare-elementuak.

1. Eguneratu ahal izango dira ibilgetu materia- leko ondare elementuak, Espainian zein atzerrian izan, hurrengo salbuespenekin: bideango ibilgetua eta entitate errentatzaileek finantza-errentamendu araubidean lagatzeko erabiltzen dituzten elementuak.

Halaber, Kreditu Entitateen Diziiplina eta Eskuhartzeari buruzko uztailaren 29ko 26/1988 Legeko zazpigarren xedapen gehigarriko 1. zen-

bakiak aipatzen duen finantza-errentamendu araubidean erositako ondare-elementuak ere eguneratu ahal izango dira. Orobat higiezin enpresen orube eta lurak, erregelamenduz zehaztuko diren baldintzetan.

Eguneratzeak nahitaez hartuko ditu egutera daitezkeen ondare-elementu guztiak eta dagoz- kien amortizazioak.

2. Balantzean edo 3. artikulua aipatzen dituen erregistro-liburuan jasota dauden ondare- elemen- tuekiko gauzatuko da eguneratzea, beti ere, bene- tan erabiltzeko moduan baldin badaude eta zer- gen ondorioetarako amortizatzeke, aipatu artikulua jasotzen duen egutera. Ondorio horre- tarako, izaera horrekin egin behar ziren amortiza- zioak, gutxienez ere, hartuko dira, Sozietateen gaineko Zergaren Testu Birbilduko 11. artikulua dionarekin bat.

3. Ezin izango dira xedapen honetara bildu kontabilitate liburuetan jasota ez dauden ondare elementuak gehitzeko eragiketak, ezta existitzen ez diren pasiboak aipatu liburuetarik kentzekoak ere.

Arau bera ezarriko zaie 1. artikuluko 2. zenba- kiak aipatzen dituen erregistro-liburuei.

4. Pertsona fisikoak baldin badira, edota erren- ten eratzikipen araubideko entitateak, enpresari edo lanbide jarduerari lotuta beharko dute egutera daitezkeen ondare-elementuek, eta eguneratzeak aipatu pertsona edo entitateek burutzen dituzten jarduera guztiak hartuko ditu.

3. artikulua. Denbora esparrua.

Eguneratzea elementuz elementu egingo da, edo elementuen multzo homogoneoka edota instalazio konplexu berezituka, beti ere, kontabiliza- zioan multzotzat hartu badira amortizazioaren ondorioetarako.

1996ko abenduaren 31n itxitako balantzean jasoko da eguneratze-eragiketen emaitza.

Pertsona fisikoak baldin badira, edota errenten eratzikipen araubideko entitateak, eta merkatarit- taz besteko enpresari jarduerak edo lanbide jar- duerak burutzen badituzte, aipatu egutera ere jaso beharko dute emaitza Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren Erregelamenduko 64. artikulua aipatzen duen inbertsio-ondasunen erregistro liburuan.

Hala ere, ekitaldi ekonomikoa bat ez baldin badator eguneratzearen urte naturalarekin, 1997ko urtean ixten den lehenbiziko balantzean jasoko da eguneratzea.

II. KAPITULUA Eguneratzeko arauak

4. artikulua. Eguneratze-koefizienteak.

Erregelamenduz onetsitako koefizienteak aplikatuz egingo dira eguneratze eragiketak.

Aipatu koefizienteek jaso beharko dute urriaren 26ko 35/1983 Foru Legeak onetsitako eguneratze hona izandako depreziazioa, eta hurrengoak hartu ahal izango dituzte kontutan:

a) Subjektu pasiboen finantzaketa-moduari buruzkoak. Ondorio horietarako, egunera daitezkeen elementuen balio-hazkundearen koefiziente murriztailea ezarri ahalko da, enpresak dituen baliabide berekien eta inoren finantzaketaren araberakoa.

b) Subjektu pasiboen jarduketan ondoriozkoak.

5. artikulua. Eguneratze-prozedurak.

1. Hona eguneratze-koefizienteak aplikatzeko moduak:

a) Erosteke prezioari edo ekoizpen kostuari, ondare-elementua erosi edo ekoiztu den urtea kontuan izanda. Inbertsio eta hobekuntzak zein urtetan egin, orduko koefizientea aplikatuko zaie.

b) Erosteke prezioari edo ekoizpen kostuari dagozkion amortizazio zergen aldetik kengarriei, kenketaren urteari begiraturaz.

Hala ere, izaera horrekin egin beharreko amortizazioak hartuko dira, gutxienez ere. Ondorio horretarako, gutxieneko amortizaziotzat joko da Sozietateen gaineko Zergaren xedapenen Testu Birbilduko 11. artikulua definitua.

2. Erregelamenduz ezarri ahalko dira koefizienteak aplikatzeko arau bereziak, eta ondoren aipatzen diren ondare-elementuak jasoko dituzte, bereziki:

a) Finantza-errentamendu araubidean erosita-koak.

b) 1983ko abenduaren 31n itxitako balantzean edo hortik aurrera itxitako lehenengoan direnak.

c) Aurreko lerroaldean aipatzen den balantzea ixteko egunaren ondoren birbalorazioak izan dituztenak, Enpresen Bategitearen Zerga Erregimenari buruzko Araua onesten duen Foru Parlamentuaren 1982ko otsailaren 8ko Erabakiak babestuak barne.

d) Ekainaren 3ko 8/1992 Foru Legeak, bategite, zatitze, aktiboen ekartze, balore-trukatze eta matrize-filial sozietateen harremanen zerga-arau-

bideari buruzkoak, bere I. Tituluan babesten dituen eragiketen ondorioz eskuratuak.

6. artikulua. Eguneratutako elementuen balioa.

1. Aurreko artikuluko 1. zenbakiko a) eta b) letrek xedatua aplikatuz ateratzen diren kopuruen arteko aldeak finkatuko du eguneratutako balio berria, merkatukoa gaitutako ez duena, elementu bakoitzaren erabilpen-egoera kontuan izanik.

2. Erregelamenduz xedatu moduan amortizatu da eguneratutako balio berria, eguneratzeko eragiketak hartzen dituen balantzea ixteko egunaren ondorengo lehen zergalditik aitzina.

7. artikulua. Gainbalioaren zenbatekoa.

6. artikulua aipatzen duen elementuaren eguneratutako balio berriaren eta ondare elementuak eguneratzeko eragiketak egin aurreko balioaren arteko aldea, zergen arabera kengarri izandako amortizazioak kontuan izanik, izango da moneta-depreziazioaren ondoriozko gainbalioaren zenbatekoa.

Eguneratutako ondare elementuaren aurreko baliotzat joko da eguneratze-koefizienteak aplikatzearen ondorioei dagokiena.

8. artikulua. Birbalorazio kontua.

1. Elementu ezberdinak eguneratzetik ateratako gainbalioen zenbatekoa hurrengo kontuan abonatuko da: ".../.... Foru Legearen birbalorazio erre-serba". Entitatearen fondo berekien baitan izango da hori.

2. Kontuak ezin izango du zordun izan, ez eguneratze eragiketen multzoarengatik, ezta ondare elementuren baten eguneratzearengatik ere.

3. Kontuaren saldoa erabilgaitza izango da, hurrengo zenbakiak aipatzen duena salbu, zerga administrazioak egiaztatu eta onetsi arte, edota hura gauzatzeko epea igaro arte. Eguneratze eragiketak jasotzen dituen balantzea itxi eta hiru urteko epearen barruan egin beharko da egiaztapena, erregelamenduz xedatu moduan.

Egiaztatze epea igarotzeak ez du esan nahi hurrengo eragiketak onartuta daudenik:

a) Egitezko hutsen ondoriozkoak.

b) Probatzeko gezurrezko elementutan oinarritzen direnak.

c) 2. artikuluko 3. zenbakiak aurrez ikusten dituenak.

4. Eguneratutako ondare elementuak eskualdatzerakoan sortzen diren galerak gutxitu egingo

dira, zerga oinarrian sartzeko, aipatu elementuei dagokien birbalorazio kontuaren saldoaren kopuruarekin, aipatu galerak kontua erabili ezin den aldian gertatu badira, beti ere.

5. Kontua erabili dela ulertuko da baldin eta ondare garbiaren gutxitzea gertatzen bada, eta eguneratze eragiketak egin ziren ekitaldiaren ondoren izandako emaitza negatiboen ondorio ez bada. Eguneratzea gauzatzen den balantzea noiz itxi, ondare garbia egun horri atxikitzen zaiola ulertuko da.

Aurreko lerroaldean xedatua gorabehera, kontuaren saldoa erabili ez dela ulertuko da, hurrengoetan:

a) Bazkidea edo akzioduna sozietatetik bereizteko duen eskubideaz baliatzen denean.

b) Kontuaren saldoa, zati baten edo osorik, ezinbestean ezabatzen denean, bategite, zatitze, aktiboen ekartze eta balore-trukatzei buruzko zerga araubide berezia ezartzen zaien eragiketaren ondorioz.

6. Egiaptapena egin ondoren, edota egiaptapena egiteko epea igarota, hurrengoetarako erabili ahal izango da kontuaren saldoa:

a) Kontabilitateko emaitza negatiboak deusezteko.

b) Sozietatearen kapitala gehitzeko. Abenduaren 22ko 1.564/1989 Errege Dekretu Legegilearen bidez onarturiko Sozietate Anonimoei buruzko Legearen Testu Birbilduak bere 214. artikuluan xedatua ezartzen zaien sozietateek legezko erreserba emendatu ahaliko dute, kapitalizazioarekin batera, sozietatearen kapitalean sartzen den zenbatekoaren 100eko 20ra arteko kopuruaz.

c) Disposizio askeko erreserbak emendatzeko, eguneratze eragiketak jaso zituen balantzea ixteko egunaz gero hamar urte igaro direnean, eta, gainera, moneta-gainbalioa gauzatua izan denean. Ondorio horietarako, gainbalioa gauzatzat joko da eguneratutako ondare elementuak kontabilitatearen aldetik amortizatuta daudenean, edo eskualdatuak edo kontabilitate liburuetan baja emanda.

7. Aurreko zenbakiko c) letrak aipatzen dituen erreserbak banatzeak hurrengorako eskubidea emango du: Sozietateen eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergek aurreikusitako dibiden duen ezarpen bikoitzarengatik kenketarako.

8. Aurreko 3 eta 5 zenbakiek aurreikusitakoa ez zaie pertsona fisikoei ezarriko.

III. KAPITULUA Kudeaketa arauak

9. artikulua. Aitorpena.

1. Sozietateen edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergei buruzko aitorpena, eguneratzea hartzen duen zergaldikoa, legez edo errege-lamenduz ezarri epearen barruan aurkeztu beharko da eta hauek erantsiko zaizkio: eguneratutako balantzea eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuak ezarriko duen informazio osagarria.

2. Errenten eratxikipen sistemaren arabera tributatzen duten enteek, eguneratutako balantzea itxi eta hurrengo sei hilabeteko epean aurkeztuko dituzte eguneratutako balantzea eta informazio osagarria.

3. Aitorpenak aurreko zenbakiak ezarri epeetarik kanpo egitea, eguneratze eragiketak baliorik gabe uzteko arrazoia izango da.

10. Artikulua. Ez betetzea.

1. Kontuaren saldoa, zati batean edo osorik, erabiliz gero, Administrazioak egiaptatu eta onetsi aurretik edo hori egiteko epea igaro baino lehen, edota 8. artikuluko ezarritakoez bestelakoetarako erabiliz gero, subjektu pasiboak hauxe ordaindu beharko du: Sozietateen gaineko Zergaren karga tasa kopuru erabili edo aplikatuari ezarri ondoren ateratzen den kuota osoa, ezar daitezkeen zehapenen kaltetan gabe eta eguneratze balantzea ixteko egunetik hasita eska daitezkeen korrituak deustan galarazi gabe.

Aplikazioa noiz gertatu den, orduko likidazio aldiari dagokion Sozietateen gaineko Zergaren aitorpena aurkezteko unean egin beharko da ordainketa.

2. 8. artikuluko 5. zenbakiko b) letrak xedatua deustan galarazi gabe, modu berean jardun beharko da desegitea, bategitea, zatitzea eta aktiboen ekarpena gertatzen baldin bada. Azkenengo hiru kasuetarako salbuespena: entitate jarraitzaileak eguneratzeari ekin zion entitateari eskatu zitzaizkion betebeharrak eta baldintzak betetzea.

Xedapen Gehigarria

“.../... Foru Legeko birbalorazio erreserba” kontuaren saldoa sozietatearen kapitalean sartzea salbuetsita egongo da Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Arauak, Foru Parlamentuak 1981eko martxoaren 17an onetsiak, bere 36. artikuluko B) letraren 15. zenbakian dioenaren arabera.

Azken Xedapenak

Lehena. Arautzeko gaikuntza.

Foru Lege hau garatu eta aplikatzeko behar beste xedapen emango du Nafarroako Gobernuak.

Bigarrena. Indarra hartzea.

Foru Lege honek indarra hartuko du, legeak aurreikusitako ondorioekin, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean.

Maiatzaren 14ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 6/1992 Foru Legeko hainbat agindu aldatzen dituen Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1996ko azaroaren 11n hartutako Erabakiaren bidez, maiatzaren 14ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 6/1992 Foru Legeko hainbat agindu aldatzen dituen Foru Lege proiektua igorri du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 108 eta 125 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Bozera-maleen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Maiatzaren 14ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 6/1992 Foru Legeko hainbat agindu aldatzen dituen Foru Lege proiektua premiazko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena. Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuak Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **zortzi laneguneko epea irekiko da, 1996ko abenduaren 5eko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126 artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentarietiek emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 1996ko azaroaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Maiatzaren 14ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 6/1992 Foru Legeko hainbat agindu aldatzen dituen Foru Lege proiektua

ZIOEN ADIERAZPENA

Foru Lege honek maiatzaren 14ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 6/1992 Foru Legeko hainbat agindu aldatzen ditu. Foru Lege honek hiru arlo zehatz ukitzen ditu.

Lehen arloa zerga-salbuespenarena da; hala, 6/1992 Foru Legeko 10. artikuluko a) letrak, errenta salbuesiak zeintzuk diren adierazten duena, beste salbuespen bat gaineratzen du, kontsideratzen dituelarik errenta salbuesiak Gizarte Segurantzak edo honen ordezkoko entitateek subjektu pasiboari aitortzen dizkioten seme-alabarik bere kargura edukitzeagatik familia-prestazioak.

Honela parekatzen dira errenta hauek eta subjektu pasiboak behin-betiko erabateko ezgaitasunarengatik edo elbarritasun handiarengatik jasotzen dituen errentak; honi esker seme-alabarik egoera berezian bere kargura duen subjektu pasiboaren egoera hobeki arautzen da.

Molde berean arautzen dira artikuluko horretako b) letran Administrazio Publikoak subjektu pasiboari seme-alaba ezindu fisiko edo psikokorik edukitzeagatik aitortzen dizkion familia-laguntzak. Aldi berean, letra honek duen idazketa berriak parekatzen ditu ezgaitasunarengatik prestazioei aplikatzen ahal zaizkien salbuespenak zentzu honetan: berdin dela, alegia, aipatu prestazioak Administrazio Publikoak edo eta Gizarte Segurantzak ordaintzen dituen. Honela Konstituzio Auzitegiak bere uztailaren 22ko 134/1996 Epaian aurkitzen duen bazterkeria ezabatu egiten da. Epaia horren arabera, Estatuko legerian badagoke konstituzio-aurkakotasunik, 1994ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 21/1993 Legeko 62. artikuluan, artikuluko honek klase pasiboaren erregimenari atxikiriko fun-

tzionario publikoen kalterako tratamendua ezarzen baitu Gizarte Segurantzako erregimenari atxikiak daudenen aurrean.

Bigarrenak 67.1.b) artikulua aldatzen du, zerga-oinarrian ken daitekeen kopurua handiagotzen delarik pentsio-plan eta fondoetarako legez ematen den diru-kopuruari buruz.

1996ko ekitalditik aurrera kengarria izan ahaliko den diru-kopurua 1.000.000 pezeta izango da, gaurkotu delarik lehen indarrean zegoena, 750.000 pezeta jotzen zuena.

Aldaketa hau bat dator azaroaren 8ko Aseguru Pribatuen Gainbegiratze eta Antolamenduari buruzko 30/1995 Legeko Hamaikagarren Xedapen Gehigarriak ekainaren 8ko Pentsio Plan eta Fondoaren arautzeari buruzko 8/1987 Legeko 5.3 artikuluan sarraritzen duen aldaketarekin, zeinak ezartzen baitu pentsio eta plan hauei egiten ahalzaien gehieneko ekarpena, urtean, ez dela inoiz 1.000.000 pezeta baino handiago izango.

Azkenik, hirugarren aldaketak, garrantzizkoenak, plusbalien tributazioan du eragina. Aldaketa honen jatorria hauxe da: batetik, ekainaren 7ko 7/1996 Errege Dekretuak ezartzen dituen aginduak, aipatu zerga erregimena erregimen arrunta bihurtu zuena, eta bestetik, Nafarroa unitate ekonomiko horretan bertan sartuta egotea, azken honek erakusten baitu ez dela komenigarria lurraldeko gainerako tokietan indarrean dagoen erregimena ez eta beste bat eduki dezan, lurraldetasunari buruzko gorabeherak izan ez daitezten.

Gainera, praktikak erakutsi du gehikuntzak denbora-une jakin batez zergagai ez izateak inbertsioen gelditzea sorrarazi duela, eta, beraz, jarduera ekonomikoaren halako geldiduna bat; hortaz, errentaren osagarri honen beste trataera fiskal bat beharrezkoa da.

Lehenengo sisteman zergagai ziren ondare-gehikuntza eta urripenak portzentaia murriztaile batzuk aplikatuz zehazten ziren, halako moldez non, elementuaren nolakoaren arabera zehazten zen halako denbora-epe bat pasatuz gero, gehikuntzak eta urripenak ez baitziren zergagai.

Murriztaileak iraunaldiko urteen arabera aplikatzen ziren, eta gehikuntzei nola urripenei aplikatzen zitzaizkien. Honela, urripenei inflazioaren eragina kentzen zitzaizkien, eta honen arabera kontentsazio-fiskalerako eskubidea galtzen zen.

40. artikuluan ezartzen den sistema berriak ez du ezer jasotzen subjektu pasiboaren ondarearen elementuen iraunaldiari buruzkorik, ez eta iraunaldiaren arabera aplikatzen ziren koefiziente murriztaileei buruzkorik ere, eta horrela ondare-adaketei

zegokien karga eta elementuek subjektu pasiboaren jabetzapean irauten duten denbora bereizturik gelditzen dira, orain arte gertatzen zen inbertsioen bahiketa saihesteko asmoz.

Orientazio berri hau Foru Legeko 41. artikuluan nabarmentzen da, finkatzen delarik errosketabaliao erregelamenduz ezarriko diren koefizienteak aplikatuz gaurkotuko dela, erosketa gertatu zen urtea aintzat hartuz.

Ondareraren kostubidezko aldaketen ondorioz ateratzen diren ondare-gehikuntza garbiak zergagai ez izatea mantentzen da, hauen zenbatekoak 500.000 pezeta baino gehiago jotzen ez badu, urte naturalaren barruan.

1997ko urtarrilaren 1a baino lehenago erositako ondare-elementuen ondoriozko ondare-gehikuntza eta urripenak zehazteko erregimen mistoa egin behar izatea honela justifikatzen da: aldaketarik gabe errespetatzea, hau ahalezkoa den neurrian, maiatzaren 14ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 6/1992 Foru Legeak ezarritakoaren arabera eginiko inbertsioen planifikazioak.

Bereiztu egiten dira 1996ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte eskualdatzen diren ondare-elementuak eta 1997ko urtarrilaren 1etik aurrera eskuladatzen direnak.

Lehengoei dagokienez, sistema aplikagarria da 1995eko abenduaren 31n indarrean zegoena, 6/1992 Foru Legeko V Tituluko I Kapituluako 4. Ataleko aginduen arabera, hau da, orain arte erabili izan den bera, baina bi aldaketa nagusiekin; koefizienteak handiagotu egiten dira, %14,28, %25 eta %11,11 izango direlarik Foru Legeko 40. artikuluko 2. zenbakiko b), c) eta d) letretan aipatzen diren elementuen kasuan, hurrenez hurren, eta ondare irregularren gehikuntzari dagokion oinarri-zatiari aplikagarri zaion gehieneko tipoa ezartzen da, hau %20 delarik.

1997ko urtarrilaren 1etik aurrera eskualdatu diren elementuei dagokienez, sistema mistoa aplikatuko da, kontuan hartzen delarik bai erosi zenetik 1996ko abenduaren 31ra arteko iraunaldia, zeinari aplikatuko baitzaizkio koefiziente murriztaileak, eta bai Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legeko V Tituluko I Kapituluako 4. Atalak ezartzen duena ere, hau da, erregelamenduz ezarriko diren gaurkotze-koefizienteak.

1. artikulua. Foru Lege hau indarrean sartzen den egunetik aurrera, ondoren aipatzen diren maiatzaren 14ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 6/1992 Foru Legeko arti-

kulu hauek ikus daitekeen eran idatzirik geldituko dira:

Bat. 10. artikulua, a) eta b) letrak

“a) Gizarte Segurantzak edo horren ordeko entitateek behin betiko erabateko ezgaitasun, elbarritasun handi edo eta seme-alabarik egoera berezian bere kargura edukitzeagatik subjektu pasiboari onartzen zaizkion prestazioak. Era berean, hitzarmen kolektiboetan ezarritakoaren arabera, behin betiko erabateko ezgaitasun eta elbarritasun handiarengatik prestazioak osabetetzen dituzten zenbatekoak, egoera hartara pasatzen den unean, subjektu pasiboak onarturik duen diru kopurua jasoko duela bermatu ahal izateko.

Halaber, ekainaren 19ko 1044/1985 Errege Dekretuak arautzen duen ordainketa bakarreko eran Gizarte Segurantzako Erakunde Kudeatzaileak ordaintzen dituen langabeziagatik prestazioak salbuetsita egongo dira, Dekretu hartan ezarritzen diren baldintzak betetzen badira eta jasotzen den kopuru osoa langile-bazkideek lan elkarte anonimoetako edo lankidetzako kooperatibetako kapital sozialaren zati nabarmenak erosteko erabiltzen badute.

b) Administrazio Publikoetako funtzionarioek zerbitzurako dituzten behin betiko ezintasun edo ezgaitasunagatik pentsioak, ezgaitasun fisiko edo psikikoen mailak edozein lanpostu betetzeko behin betiko erabateko ezintasuna dakarrenean edo eta elbarritasun handizat har daitekeenean. Era berean, seme-alaba ezindu fisiko edo psikikorengatik jasotzen diren familia laguntzak salbuetsita egongo dira.”

Bi. 40. artikulua.

“40. artikulua. Gehintza eta urripenen zenbatekoa. Irizpide nagusia.

Ondare gehikuntza eta urripenen zenbatekoa honako hau izanen da:

a) Kostubidezko edo irabazpidezko eskualdaketan kasuetan, ondare elementuak erosteko eta eskualdatzeko balioen arteko aldea.

b) Gainontzeko kasuetan, ondare elementuak erosteko balioa, edo hala balitz, zati proportzionalak”.

Hiru. 41. artikulua.

“41. artikulua. Eroste eta eskualdatze-balioak

1. Eroste-balioa ondoko hauen batura izanen da:

a) Erosketa egin den zenbateko erreala, edo hala balitz, ondorengo artikulua aipatzen duen balioa.

b) Erositako ondasunetan eginiko inbertsio eta hobekuntzen kostua, eta erosleak eskualdaketa egiteagatik ordaindu dituen gastuak eta zergak, korrituak ezik.

Balio hau erregelamenduz ezartzen diren koefizienteak aplikatuz gaurkotuko da, erosketa, inbertsioa edo hobekuntza zer urtetan egin den kontuan hartuz, eta gastu zein zergen kasuan, berauek sortu diren urtea kontuan hartuz.

Aurreko artikulua ezarritakoaren arabera, akzioak guztiz liberatuen kasuan, beraien aintzinasuna zein den jakiteko, zera ikusiko da: akzio hauek zer akziotatik datozen ikusi, eta azken hauen aintzinasuna bera.

Balio hau txikiagotuko da, bidezkoa denean, ondoko kontzeptuetan:

1goa. Erregelamenduaren arabera ezarritako amortizazioen zenbatekoa.

2garrena. Kapitalaren murrizketa dela eta, eginen diren ekarpenen itzulketaren zenbatekoa. Zenbateko hori, 39. artikulua 6. zenbakiko d) letrak aipatzen du.

3garrena. 43. artikulua 1. zenbakiko l) letrak xedatutakoaren arabera, ondare-gehikuntza bezala kalifikatzen ez diren harpidetze-eskubide besterenganatuen zenbatekoa.

Zenbateko hauek erregelamenduz ezarriko diren koefizienteak aplikatuz gaurkotuko dira, amortizazioak, itzulerak eta besterenganatzeak, hurrenez hurren, zer urtetan gertatu diren kontuan hartuz.

2. Besterenganatzea egin den zenbateko erreala balioa eskualdaketarena izanen da, edo hala balitz, ondoko artikulua aipatzen duena. Zenbateko horri kenduko zaizkio aurreko zenbakiko b) letrak aipatzen dituen gastuak eta zergak, eta hori eskualdaketa egiten dutenek ordaintzen dituztenean.

3. Besterenganatzearen balioaren zenbateko erreala jasotakoa izanen da, beti ere, merkatuan dagoen ohiko baliotik aldentzen ez bada, hala ere, horrela balitz, merkatukoa aintzat hartuko da.

4. 51. artikuluko 3. zenbakiak esaten duenaren kaltetan gabe, ondare-gehikuntza eta urripenak zehazteko, salneurria edo epea geroratuko eragiketetan, ondare-aldaketa gertatzen den unea hartuko da aintzat.”

Lau. 43.1.a) artikulua.

“a) Balorio-merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legeak aurreikusitako baloreen bigarren mailako merkatu ofizialetako batean negoziatzeko onaturiko balioetatik sortzen badira, edo eta apirilaren 4ko 710/1986 Errege Dekretuak ezartzen duenaren arabera, bigarren balio-merkatuaren batean onaturiko baloretatik sortzen badira, eta sozietate edo entitateen fondo berekietan parte hartzearen adierazgarriak badira, gehikuntza edo urripena lortuko da eroste-balioaren eta eskualdatze-balioaren arteko aldea atereaz. Balio horrek, kotizatzen den egunean merkatuan duen balioa hartuko du, edo bestela, itundutako prezioa baldin eta berau kotizazioa baino handiagoa bada.

Partez liberaturiko akzioak direnean, berauek izanen dute eroste-balioa izanen da subjektu pasiboak ordaindutako benetako zenbatekoa.

Gutziz liberaturiko akzioak direnean, eroste-balioa, bai hauena eta bai hauen sorburu direnena, guztizko kostua titulu-kopuruaren artean banatuzetik ateratzen dena izango da, titulu-kopuru horretan bai aintzinakoak eta bai liberatuak sartzen direla.”

Bost. 43.1.b) artikulua, azken lerroaldea.

“Gutziz edo partez liberaturiko akzio edo partaidetza sozialak direnean, eroste-balioa izanen da subjektu pasiboak benetan ordainduriko zenbatekoa. Gutziz liberaturiko akzio edo partaidetza sozialak direnean, eroste-balioa, bai hauena eta bai hauen sorburu direnena, guztizko kostua titulu-kopuruaren artean banatuzetik ateratzen dena izango da, titulu-kopuru horretan bai aintzinakoak eta bai liberatuak sartzen direla.”

Sei. 67.1.b) artikulua.

“b) Milioi bat pezeta urtean.”

Zazpi. 68. artikulua.

“68. artikulua. Likidazio-oinarri ez erregularra.

Likidazio-oinarri ez-erregularra zerga-oinarriaren zati ez-erregularrak osatuko du, zeina, hala badagokio, bi zatitan banatuko baita:

a) Errendimendu ez-erregularrak

b) Ondare-gehikuntzak ez-erregularrak.”

Zortzi. 71. artikulua.

“71. artikulua. Karga-tasa.

1. Errendimenduek osatzen duten likidazio-tasa ez-erregularra ondoko tasarik handienaren arabera kargatuko da:

a) Karga-eskala, errendimenduek osatzen duten likidazio-tasa ez-erregularraren 100eko

50ean aplikatzearen ondoriozko batez besteko tasa.

b) Aitzineko artikuluko 2. zenbakian definitutako bataz besteko karga-tasa.

2. Ondare-gehikuntzek osatutako likidazio-oinarri ez-erregularraren parte 100eko 20an kargatuko da.”

2. artikulua. Maiatzaren 14ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 6/1992 Foru Legeko Seigarren Xedapen Iragankorreko 1. zenbakiak idazketa berria izanen du.

“1. Foru Lege honetako 41. artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, 1979ko urtarrilaren 1ean baino lehenago erositako ondare-elementuen eskualdaketarekin edota data horren aurretik erositako baloretatik datozen harpidetze-eskubideen eskualdaketarekin agertuko diren ondare-gehikuntza edo urripenetan, subjektu pasiboak eroste-baliotzat 1978ko abenduaren 31ko dataz merkatuan zegoena hartu ahal izanen du, beti ere, merkatukoa eroste-balioa baino handiagoa bada. Kasu horretan, eroste-datatzat 1979ko urtarrilaren 1a hartuko da.”

3. artikulua. Maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeari Hamalagarren Xedapen Iragankorra gaineratzea, ondorengo edukia izango duena:

“Hamalagarrena. 1997ko urtarrilaren 1a baino lehen erositako ondare-elementuen ondoriozko ondare-gehikuntza eta urripenen zenbatekoa finkatzea.

1997ko urtarrilaren 1a baino lehen erositako ondare-elementuen ondoriozko ondare-gehikuntza eta urripenen zenbatekoa honela finkatuko da:

1. 1996ko urtarrilaren 1 eta abenduaren 31 artean eskualdatutako ondare-elementuak.

1995eko abenduaren 31n indarrean zeuden Foru Lege honetako V. Tituluko I. Kapituluko 4. Ataleko arauak ezartzen dutenari jarraikiz, ondare-gehikuntza edo urripena espezialitate hauen arabera finkatuko da:

Aipatu Foru Legeko 40. artikuluko 2. zenbakiko b), c) eta d) letretan aurreikusten diren portzentaiak 100eko 14,28, 100eko 25 eta 100eko 11,11, izango dira, hurrenez hurren.

Ondare-gehikuntza hauek ez dira Zerga honen menpe egongo: subjektu pasiboaren ondarean goian aipatutako letrek aintzat hartzen dituzten ondasun edo eskubideen iraunaldia zortzi, bost eta hamar urte, hurrenez hurren baino handiagoa izan denean.

Ondare urripen ez-erregularrak ez dira murriztuko.

2. 1997ko urtarrilaren 1tik aurrera eskualdatutako ondare-elementuak.

1goa. Foru Lege honetako V. Tituluko I. Kapituluako 4. Atalak ezartzen duenaren arabera, elementu bakoitzarentzat ondare-gehikuntza edo urripena finkatuko da.

2garrena. Ondare-gehikuntza ez-erregularren kasuan, bere zenbatekoa honela murriztuko da:

a) Subjektu pasiboaren ondarean izan den iraunaldia honela neurtuko da: elementua erosi denetik 1996ko abenduaren 31ra arte iragan diren urteak, zenbaki hau gora joaz borobilduko dela.

Harpidetza-eskubideei dagokienez, iraunaldia honela neurtuko da: zer baloretatik datozen, hainbesteko iraunaldia.

Eskualdatzen diren ondare-elementuetan inbertsioak edo hobekuntzak egin badira, inbertsio eta hobekuntza hauen iraunaldia subjektu pasiboaren ondarean honela neurtuko da: berauek egin diren egunetik 1996ko abenduaren 31ra arte iragan diren urteak, zenbaki hau gora joaz borobilduko dela.

b) Uztailaren 28ko Balio-merkatuari buruzko 24/1988 Legeak aurreikusten dituen bigarren mailako merkatu ofizialaren batean negoziatzeko onartu diren akzioen kasuan, ondare-gehikuntzak edo urripenak 100eko 25 murriztuko da iraunaldiaren urte bakoitzeko, beti ere bi urte baino gehiagoko iraunaldia bete eta gero. Arau honetatik salbuetsirik daude Higiezineta eta Mobiliarioetan Inbertsioak egiten dituzten Elkarreetako kapital sozialaren nabarmengarri diren akzioak.

c) Aurreko b) letran ezarritakoaren kaltetan gabe, eta ondasun higiezin, hauen gaineko eskubideen edo eta otsailaren 26ko 1/1990 Foru Legeko 59. artikuluan sartzen diren entitateen kasuan, ondare-gehikuntza edo urripena 100eko 11,11 murriztuko da iraunaldiaren urte bakoitzeko, beti ere bi urte baino gehiagoko iraunaldia bete eta gero. Arau honetatik salbuetsirik daude Higiezineta Inbertitzeko Fondoan edo Elkarteen ondare edo kapital sozialaren nabarmengarri diren akzioak edo partizipazioak.

d) Gainerako gehikuntzak 100eko 14,28 murriztuko dira iraunaldiaren urte bakoitzeko, beti ere bi urte baino gehiagoko iraunaldia bete eta gero.

e) 1996ko abenduaren 31n, aurreko b), c) eta d) letretan esandakoaren arabera, bost, hamar eta zortzi urteko iraunaldia, hurrenez hurren,

duten ondare-elementuen ondoriozko ondare-gehikuntzak ez dira zergagarriak izango.

3garrena. Ondare urripen ez-erregularrak ez dira murriztuko.

4garrena. Eskualdatu diren ondare-elementuetan inbertsioak edo hobekuntzak egin izan balira, osagarri bakoitzari dagokion besterenganatze-balioaren zatia zein den bereiztuko da, lehengo 2. eta 3. ataletan ezarritakoa aplikatu ahal izateko."

4. artikulua. Maiatzaren 14ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 6/1992 Foru Legeari Hamabosgarren Xedapen Iragankorra gaineratzea, ondorengo edukia izango duena:

"Hamabosgarrena. 1996ko zergaldiko errenta ez-erregularren karga-tasa.

1996ko zergaldian likidazio-oinarri ez erregularrari aplikatzen ahal zaion karga-tasa ondoren aipatzen direnetan handiena izango da:

a) Karga-eskala likidazio-tasa ez-erregularren 100eko 50ean aplikatzearen ondoriozko batez besteko tasa.

b) Foru Lege honetako 70. artikuluko 2. zenbakian definitu den karga-tasaren batez bestekoa.

Alabaina, ondare-gehikuntzek osatzen duten likidazio-oinarri ez-erregularrari aplikatzen ahal zaion karga-tasa ezin izango da 100eko 20 baino handiagoa."

Xedapen Iragankorra

Salneurri geroratuko ondare-gehikuntzen erregimen iragankorra

Kostubidezko aldaketen ondorioz 1996ko urtarrilaren 1a baino lehen atzeman diren ondare-gehikuntza ez erregularren kasuan, salneurria edo prezioa geroratu denean, erabat edo partez, esandako egun horren ondoren kobrantzak egin behar direnean, eta subjektu pasiboak eskubidea sortzen deneko uneari egoztea erabaki ez badu, ondoren aipatzen diren arauak diotenari atxikiko zaio:

1goa. 1995eko abenduaren 31n indarrean zeuden maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeko V. Tituluko I. Kapituluako 4. Atalak ezartzen dituen aginduen arabera, gertatu den ondare-gehikuntza zehaztuko da, nahiz eta aipatu Foru Legeko 40. artikuluko 2. zenbakiko b), c) eta d) letretan aurreikusten diren portzentaiak %14,28, %25 eta %11,11 izango diren, hurrenez hurren.

2garrena. Ateratzen den gehikuntza ondoren esaten den bezala murriztuko da: 1996ko urtarril-

laren 1a baino lehen kargatu denaren zenbatekoan.

3garrena. lehengo arauan aurreikusten den eragiketaren emaitza positiboa kobrantzak gertatzen diren ekitaldiei egotziko zaie, kobrantza hauen proportzioan.

4garrena. Egozten den gehikuntzaren zenbatekoa zerga-oinarrian sartuko da eta ekitaldi hartako indarreko arauen arabera kargatuko da.

5garrena. 2garren arauan aurreikusten den eragiketaren emaitzaren hondarra zero edo negatiboa denean, ez da ezer kargatuko Foru Lege honetako indarraldiaren kariatz sortuko litzatekeen gehikuntza dela kausa.

Azken Xedapenak

Lehena. Foru Lege honen aurka egiten duten lerrun bereko edo gutxiagoko erabaki guztiak indargabetuak gelditzen dira, bereziki maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeko 51. artikuluko 3. zenbakiko azken erroaldea.

Bigarrena. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Foru Lege hau bete eta garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Hirugarrena. Foru Lege honek, bertan aurreikusten diren ondorio guztiekin, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1996ko azaroaren 11n hartutako Erabakiaren bidez, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 155. artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaleen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Lege proiektuaren biderapena zuzeneko eta irakurketa bakarrekota izanen ote den Osoko Bilkuraren esku jartzea.

Bigarrena.- Emendakinak aurkezteko epe bat irekitzea. Epe hori proiektua eztabaidatuko duen Osoko Bilkuraren aurreko eguneko 12etan bukatuko da. Berauek Biltzarreko Mahaiaren aurrean aurkeztu behar dira.

Hirugarrena.- Aipatu proiektua Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 1996ko azaroaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari kreditu-osagarri bat emateko Foru Lege proiektua

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan agerian geratu da aurrekontu dotazioa handitu beharra etxebizitza arloko hainbat dirulaguntza eta laguntza mota finantzatzeko.

Horren ondorioz, behar horiei erantzun ahal izateko egoki den kreditu-osagarri bat eman da, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 44. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

1. artikulua. 500.000.000 pezetako kreditu-osagarri bat eman da Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren beharrei erantzuteko. Osagarri hori aplikatuko zaio 1996ko Aurrekontuan “Etxebizitzen sustatzailer, erosle eta erabiltzaileendako dirulaguntza eta sorospenak. Foru Programa” izena duen 32220-7800-4312 gastu-kontusailari, 20000 proiektuari, 99001-7 lerroari.

2. artikulua. Kreditu-osagarri honen finantzaketa egingo da Departamentu berean eskura dauden kredituen kargura, hain zuzen ere 20000 proiektuko hurrengo kontusailen kargura:

- 32210-6020-4311, lerroa, 11881-6, izena, “Alokatzeko etxebizitzaren parke publikoa eratzea”, kopurua, 300.000.000 pezeta.

- 32210-6000-4311, lerroa, 93002-2, izena, "Lurzorua eta etxebizitzak erosi eta sustatzea", kopurua, 200.000.000 pezeta.

Azken Xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B Sails:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzkoa

EMENDAKINAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarrak, 1996ko azaroaren 14an egindako Osoko Bilkuran, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 1996ko urriaren 18ko 54 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaleen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzko Foru Lege proposamena ohiko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena. Proposamen horri buruz Irizpena emateko ahalmena Industri, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost laneguneko epea irekiko da, 1996ko abenduaren 16ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. eta 145.5 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.”

Iruñean, 1996ko azaroaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

F Sails:
GALDERAK

Ikastetxe itunduetako jarduera osagarriengatik kobratzeari buruzko indarreko legeriari buruzko galdera

CARLOS CRISTOBAL GARCIA FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko azaroaren 18an egindako bilkuran, Carlos Cristóbal García Foru Parlamentari jaunak ikastetxe itunduetako jarduera osagarriengatik kobratzeari buruzko indarreko legeriari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegi-leak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1996ko azaroaren 19a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko kidea den Carlos Cristóbal Foru Parlamentari jaunak, Parlamentuko Erregelamenduak ezartzen duenaren babesean, hurrengo galdera hau egiten du idatziz erantzun diezaioten:

Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak, Parlamentuan “zenbait ikastetxe pribatu hitzartuk kobratu dituen diru kopuruei buruz” egin zitzaion galdera erantzun duenean, baieztatu du “kobrantza hau indarreko legearen arabera dela” eta “jakintzak ematen dela” gurasoek “nahiko ezagutzen dituztela” ikastetxeko arauak eta “ez dirudiela

sinisgarria ikastetxeak ezagutzera ez ematea” zer diru kopuru kobratzeko baimena duen.

Baieztatzen du, halaber, ezen, indarreko legeriaren arabera, Hezkuntza Ikuskapenak ezagutzen dituela eta onartzen dituela “eskola-jarduera osagarriak, eskolatik kanpoko jarduerak eta ikastetxe bakoitzak programatzen dituen zerbitzu osagarriak eta hauen kostua”.

Kontseilariaren baieztapen hauek ikusirik, eta ikastetxe pribatua zein ikastola aukeratzeko duten gurasoek benetan jakin dezaten ikastetxe hauek zer diru kopuru kobratzen ahal dieten, honako hau jakin nahi da:

– Nafarroako ikastetxe itunduei buruzko indarreko legeriak zer dioen eskola-jarduera osagarriak, eskolatik kanpoko jarduerak eta zerbitzu osagarriak kobratzeari dagokionean.

– Nafarroako ikastetxe itunduei eskola-jarduera osagarri, eskolatik kanpoko jarduera eta zerbitzu osagarriengatik eman zaien kobratzeko baimenen zerrenda 1996-1997 ikasturtean, ikastetxez ikastetxe, maila guztietan, zenbat kobratzeko baimena eman zaien esanez eta ikasleentzako ordaintzea derrigorrezkoa ote den adieraziz.

Iruñean, 1996ko azaroaren 13a

Foru Parlamentaria: Carlos Cristóbal García



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.700 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 125 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 160 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--